



AL CAER DE LA TARDE.

(Fotografía y texto de PAKOL)

ARRATSALDE-APALIAN.

(PAKOL'en argazki eta idaztiak)

ARRATSALDE-APALIAN

Ezkutatu da eguzkia gaurkoz. Zeruetako urdiña estaliaz, laño olatuak jarri dira orain arte dirdiraz egon diran arkaitz zurietan.

Lurrak ernatutzen duan ereserkia eldu da beratu aldira, eta jausitasun legun ontan, obeki entzuten uzten ditu batetik bestera dabiltzan artaldean zintxarri eta beekak.

Aurrena zalantzan egon dira lañoak mendi gallurretan, baño asi dira orain geldi-geldi zelaietara erortzen.

Orra or nun datorren gure alderuntz artzai bat, bere artaldearen atzean. Bakar izketan? Ez; aginduak emanaz dator bere txakurtxoari eta au leiatzen da betetzen.

Ba dijoaz gure aurretik ardi ta arkumeak —betiko sorgor keiñuakin— beren saroi aldera.

Illunabarra ere atean degu. Atera zagun gaurko azkenengo argazkia eta goazen gu ere, artaldearekin batean, gure gaur gaberako estalpera.

Biar, Jaunkoikoa lagun, zabalduko du egun berria...

AL CAER DE LA TARDE

Ya se ocultó el sol por hoy. Cubriendo el azul de los cielos, olas de niebla se han posado en los hasta ahora brillantes picos blancos.

El himno que brota de la tierra llega al decrescendo y su suave desvanecer deja escuchar con mayor claridad las esquilas y los balidos de los rebaños que de un lado a otro van.

En principio, las nieblas se han mantenido indecisas sobre las crestas, mas ya comienzan a caer, lentamente, sobre la pradera.

He ahí donde viene hacia nosotros un pastor tras su rebaño. ¿Monólogo? No; viene dando a su perrito órdenes que éste se afana en cumplir.

Ya desfilan ante nosotros —con su eterno gesto impasible— ovejas y corderos que se dirijen a su majada.

El oscurecer ya está a la puerta. Obtengamos nuestra última fotografía de hoy y caminemos también, con el rebaño a la vez, hacia nuestro refugio de esta noche.

Mañana, Dios mediante, amanecerá un nuevo día.